

3- FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua arrakastaz garatzeko, ezinbestekoa da bazkide eta hornitzaileen sare sendo eta koordinatua izatea. Gure kontzeptua ez da janaria eskaintzera mugatzen: esperientzia gastronomiko eta tematikoak sortzen ditugu, eta horrek lankidetzaz espezializatuak eta osagarriak behar ditu.

Lehenik, elikagaien hornitzaile espezializatuak behar ditugu, gure produktuen kalitatea, segurtasuna eta zapora estandarra bermatzeko. Haiek dira gure menuaren oinarria eta janari lasterra modu profesional eta fidagarrian eskaintzea posible egiten dutenak.

Horrez gain, food trucken edo sukalde mugikorren hornitzaileak funtsezkoak dira, gure zerbitzua edozein lekutara eramanez ahal izateko. Logistika, ekipamendu profesionalak eta mugikortasuna bermatzen dituzte, eta horrela, ekitaldi mota guztietara egokitu gaituzke.

Gure negozio eredua esperientzian oinarrituta dagoenez, beharrezkoak ditugu baita dekorazio, musika eta entretenimenduaren sektoreko kolaboratzaileak ere. Haiek laguntzen dute giro tematikoa sortzen eta bezeroak janariaz gain esperientzia dibertigarri eta gogoangarri bat bizitzen.

Bestalde, marketin agentziak eta marka kolaboratzaileak gure ikusgarritasuna handitu eta ekitaldiei balio erantsia ematen diete. Haien bidez ezagutza soziala handitzen dugu eta gure kontzeptua publiko zabalago batera iristen da.

Era berean, langile kualifikatuak, hala nola sukaldariak, zerbitzariak eta event managerak, ezinbestekoak dira bezeroari arreta egokia emateko, higiene eta segurtasun arauak betetzeko eta esperientzia osoaren exekuzioa kontrolatzeko.

Azkenik, Estatu Batuetan gure jarduera garatuko dugunez, aholkularitza legal eta sanitarioa izango dugu bidelagun. Horrek lege baldintzak, FDA eta OSHA araudiak eta tokiko baimenak egoki betetzen direla bermatzen du, arriskuak gutxituz eta jarduera profesionalizatuz.